

“Ez dira betiko garai onenak”, euskara. Hertzainak taldeak hala esan zuen 1990ean eta nik hala sentitzen dut gaur. Ez zaitut gertu sentitzen eta ametsa izatea gustatuko litzaidakeen arren, egunero hurrunago sentitzen zaitut. Ikastolan giltzapetuta zaudela ematen du, liburuen orrialdeetatik atera ezinik, baina zu laguntzera etorri gara.

Gure esku dago lan hori, zu kaleetako edozein txoko, etxe edo enparantzara ateratzearena eta horregatik naiz gaur ahobizi, talde lan horretan parte hartzeko. Haztearekin batera zurekin harremana estutuz joan naiz, baina ez dut bakarrik hazten jarraitu nahi, zure eskutik egitea gustatuko litzaidake. Edonora joango naiz zure eskua hartzeko eta elkarrekin bide berriak sortuz hazteko. Nafarrora beharbada, ez?

Izkutaturik egonda ere, ez nauzu harrizteari uzten, euskara. Horren lekuko duela gutxi nafarroan aurkitutakoa. “IRULEGIKO ESKUA”, horrela izendatu dute.

Mattin Aiestaran arkeologoaren taldeko Leire Malkorra induskariak aurkitu zuen brontzezko pieza, 2021ko ekainaren 18an. Oraindik esku forma zuela jakin gabe ere, garrantzizkoa izan zitekeelakoan, ingurua kontu handiz garbitu zuten eta prozesua grabaketaz dokumentatu.

2021eko uztailaren 13an, eskua Nafarroako Gobernuako agintarien ardurapean geratu zen, indusketako beste pieza batzuekin batera.

2022ko urtarrilaren 18an, Carmen Usua zaharberritzaileak garbiketa prozesuan antzeman zuen idatzita zegoela: eskuak azazkal marraztuak zituela eta eskuina zela igarri zuen, baina garbiketa eta «irakurketa» prozesua eskua atzamarrak gora zituela egin zuen, eta laneko mahaian zaharberritzailearen eskuen posizio logiko bera errepikatu zuen. Hizkiak ikusi zituzten lehen epigrafistek, ordea, alderantzizko irakurketa zegokiola nabaritu zuten eta, hortaz, eskuak beherezko posizio naturala zuela. Usuarekin batera, Berta Balduz zaharberritzaileak osatu zuen errestituzio prozesua.

2022ko azaroaren 14an aurkeztu zuten prentsaren aurrean Nafarroako Gobernuak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak.

Eskuaren gainazalean “sorioneku” hitza dago idatzita. Orain arte ezagutzen dugun euskararen arrastorik zaharrena da. Harrigarria da hain berezia eta bakarra dugun hori zein txarto erabiltzen dugun.

“Gu sortu ginen enbor beretik” aipatu zuen Mikel Laboak eta gezurrik esan ez zuela frogatu diguzu.

Euskara, zure enborra zein den oraindik ez badakigu ere, ez zaitugu erabiltzen utziko, izan ere, izan zinelako gara eta espero dut egiten ari garen lanarekin izaten jarraitu ahal izatea.